Atenastar gizartea : antolaketa eta klase sozialak

Gizonak

Atenastarrak

Alabak

Metekoak

Kanpotarrak

Hiritarrak

Emakumeak

Esklaboak

Semeak

5. dokumentua: Gizartearen antolaketa: klase sozialak.



V. mendean K.a., Atenas polisean 300 000 biztanle inguru izango zituela pentsatzen da. Garai hartan, jatorria, sexua edo adinaren arabera klase sozial ezberdinak baziren:

Hiritarrak Atenasko aita eta amen semeak ziren, eskubide guztiak zituztenak: biltzarretan eta polisaren gobernuan parte har zezaketen, lurrak ukan zitzazketen...

Beste herritar gehienak **eskubiderik gabeko herritar libreak** ziren. Alde batetik, eskubiderik gabeko atenastar zeuden: hiritarren emazteek, alabek eta hogei urte baino gutxiago zituzten semeek ez zuten politikan parte hartzerik. Bestetik, atzerritarrak ziren, batzuk libreak (metekoak) eta beste batzuk esklaboak.

Emakumeak, 16 bat urterekin, ezkontzen ziren beren gurasoek aukeratutako gizonarekin. Seme-alabak zaindu eta etxeko lanak egiten zituzten, zenbaitetan esklaboek lagunduta.

Metekoak artisautza eta merkataritzan aritzen ziren atzerritarrak ziren, eta zergak ordaintzera behartuta zeuden. **Esklaboak** gerrako presoak edo esklaboen seme-alabak ziren. Polisaren, herritarren edo metekoen jabetzakoak izan zitezkeen. Ez zeukaten eskubiderik eta salduak edo beste zerbaiten truke aldatuak izan zitezkeen.

LIVEWORKSHEETS